

Ekimen solidarioak 413-1

Giza larrialdia eta kooperazioa

EROSKI n uste dugu solidaritatea mugatik harago ere mantendu behar dela; hori dela eta, gure kanpainak urrunago dauden horien premiei erantzutera ere bideratuta daude.

Gabonetako kanpaina solidarioa, haurren alde

2019an, Gabonetako kanpaina solidarioa egin dugu haurren alde, hori izan baitzen kontsumitzaileek aukeratutako kausa. Kuxan dohaintza egin zuten bezeroek Gabonetako txartela jaso zuten opari. Kanpaina honetan bildutako 59.000 euroak Siriako haurren nutrizioa hobetzera zuzendu ziren, UNICEFen bitartez, bai eta haurren obesitatearen prebentziara ere, EROSKI Fundazioaren bidez.

Produktuak emateko programa

Elikagaiak ez diren produktuak (jostailuak, oinetakoak, arropa, ikas-materiala eta produktu optikoak, besteak beste) ematen dizkiegu Latinoamerikako hurrei, giza garapen jasangarrirako eta nazioarteko lankidetzarako lan egiten duen Munduko Haurren Federazioaren bitartez. 2019an, 99.900 eurokoak izan ziren dohaintzak.

Poltsa solidarioa ACNURren alde

2019ko urrian, poltsa solidarioen kanpaina egin dugu ACNURren ekimenak babesteko, hots, neguan zehar Siriako errefuxiatuei eta ihesi joandakoei laguntzeko. Gure bezeroei esker, 3.000 euro bildu genituen, eta helburu horrekin erabili dira. Halaber, ekitaldian zehar beste elkarte batzuekin elkarlanean aritu gara, hala nola, Mugarik Gabeko Medikuek, Caritas eta Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekin (AECC), poltsa solidarioen bidez.

Tokiko elkartasun kanpainak

Elikadura solidaritateko programek gure inguruan dauden eta bazterkeria soziala pairatzeko arriskua duten pertsonen laguntzen diete, eta tokiko beste kanpaina batzuen osagarri dira. Horrelako ekimenen bitartez zera lortu nahi dugu: gure jarduera dagoen

lekuetan gertatzen diren egoera larriei erantzun; kolektibo ahulei lagundu eta gizarteratzea sustatu, baliabide naturalak babesten laguntzen duten kontsumo ohiturei esker.

Tafallako uholdeek eragindako larrialdian laguntzeko kanpaina

Tafalla eta inguruan egondako uholdeak zirela-eta, kanpaina berezia jarri genuen martxan Nafarroan. Horrekin, 21.000 euro bildu genituen EROSKIren eta gure bezeroen solidaritateari esker. Diru hori Nafarroako gobernuaren esku jarri dugu, uholdeen ondorioak pairatu dituzten familiei laguntzeko.

Proyecto Hombre-rekin antolatutako kanpaina Balearretan

2019an, "Contigo, la vida coge color" ("Zurekin, bizitzak kolorea hartzen du") izeneko kanpaina egin dugu Balearretan. Horren bidez, supermerkatuetako bezeroei objektu original bat eskaini zitzaion, Proyecto Hombre fundazioari euro bateko dohaintza egitearen truke. Guztira 40.000 euro bildu genituen, uharteko droga-mendekoei laguntzeko programetan erabiliko direnak.

Ehunezko hondakinen kudeaketa solidarioa eta jasangarria

Urtero bezala, bezeroek gure dendetara eramandako arropa eta oinetakoak (berrerabiltzen zein birziklatzeko) Kooperera, Humana, Pueblo para Pueblo Fundazioa edo INS3RTEGA bezalako elkarteek kudeatu dituzte, eta irabaziak hainbat gizarte proiektutara zuzendu dira. Adibidez, Bartzelonan "Hort al terrat" ekimenean erabili dira, desgaitasuna duten 120 pertsona biltzen dituen.